



■ EREÑOTZU

Gabon Festa haundia, bihar

Arratsaldeko 18:00etan hasita, Gabon Festa haundia antolatu dute bihar, Ereñotzuko frontoian, Katiluzar Guraso Elkarateak eta Olak Auzo Elkarateak. Denetik izango da: taloak, jolasak, zirko emanaldia, musika... ■

■ ZOZKETA

Ipuin bildumek badituzte sarituak!

Arago. Istorioak belarrietara kontakizunak 2 ipuin bildumaren hiru ale zozketatu dituzte Doberak eta Kronikak, Iñigo Legorburuk oparituta, bazkide eta irakurleen artean. Hauek izan dira irabazleak: Ainara Errazkin, Enkarni Aranburu eta Inaxio Sanz. Zorionak! ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Agerraldia, Marta Igarritzen senideen istripua salatzeko

Istripu larria izan zuten asteazkenean, Marta Igariz Izeta preso hernaniarraren amak, arrebak eta izebak, Castelloko espetxetik bueltan. Hori salatzeko, agerraldia egingo du Etxeratek gaur, 11:00etan Atsegindegian, eta bat egin du Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek. Kalera Kalerak, berriz, ekitaldia antolatu du salaketa egiteko, 20:00etan Tilosetan. Bestalde, bihar *photocalla* egingo dute Nafar Kalean (12:00-14:00), Bilboko presoan aldeko manifestazioa berotzeko. ■

■ GAZTELEKUA

Urtea agurtzeko festa, gaur

Urte bukaerako festa egingo dute gaur, Hernaniko Gaztelekuan, arratsaldeko 17:00etan hasita. 12 urtetik gorako gaztetxo guztiak gonbidatu dituzte. ■

■ UDALA

Presazko bilera, Tokiko Gobernuak

Ezohiko eta presazko bilera deia egin du gaurko, Tokiko Gobernu Batzordeak. Alkatetzan izango da, 09:30etan hasita. ■

■ KIROLDEGIA

Bingo solidarioa gaur, kiroldegian

Hiru saio egingo dituzte, goizeko 11:00etan hasita, eta Elikagai Bankurako janaria eramatearen truke banatuko dituzte kartoia, jokatzeko. Bestalde, ludotekaren azkeneko eguna izango da.

GABONETAKO ekintzetan murgilduta dago Hernaniko kiroldegia. Haur eta gaztetxoek gaur izango dute azkeneko, ludotekako jolasetan gozatzeko; eta baita helduek ere, familia osoaren partehartzea bilatu baitute aurten, txoko ezberdinetan: eskalada sagardo kaxekin, kama elastikak, jokuak, koltxonetak, zinta gainean ibiltzea... Goizeko 10:00etatik 13:00etara izango da aukera.

Baina beste zita bat ere izango dute gaur, kiroldegian bertan: bingo solidarioa egingo dute, goizean zehar.

Hiru bingo saio izango dira, goizeko 11:00etan, 11:30etan eta 12:00etan. Baina parte hartzeko kartoia, ez dira erosi behar: janaria eramatearen truke banatuko dituzte.

Izan ere, «proposamenak bi funts nagusi ditu», kiroldegitik

azaldu dutenez: «janari bilketa bat egitea, eta ekintza berri eta dibertigarri bat konbinatzea. Ez da beharrezkoa izugarriko erosketa bat egitea, bakoitzak ahal duen neurrian zerbait ekartzearekin, asko lagundu dezakegu eta. Eta aldi berean, guztiok batera goiz dibertigarri bat pasako dugu».

Eramandako janaria, Gipuzkoako Elikagai Bankuari emanango diote; eta parte hartzaileek, berriz, «sari bikainak» eskuratzeko aukera izango dute.

Igeriketa txapelketa, bihar

Bihar arratsaldean, berriz, itxita egongo dira igerilekuak, igeriketa txapelketa egongo delako bertan.

Eta igandean eta astelehenetan, abenduaren 31n eta urtarriaren 1ean, kiroldegia egongo da itxita. ■



Eskalada egiteko aukera ere badago, ludotekan.

■ BERTSOLATA

Finalaren mailako bertso jaialdia, urtea agurtzeko

Bertso saioa izango da bihar, 18:30etan Biterin: Eli Pagola, Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Agin Laburu, Amets Arzallus eta Sustrai Colina.

MAILA haundiko bertso saioa, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaren mailakoa ia, prestatu dute biharko, Bertsolataren barruan. Biterin izango da jaialdia, eta puntako sei bertsolari igoko dira taula gainera, urtea bertsotan agurtzeko: Eli Pagola, Maialen Lujanbio, Unai Agirre eta Agin Laburu, Hernaniko Bertso Eskolakoak; eta Amets

Arzallus eta Sustrai Colina. Lau egon ziren, BECeko finalean.

Arratsaldeko 18:30etan hasiko da saioa, eta sarrerak, ordu eta erdi lehenago jarriko dituzte salgai, 17:00etatik aurrera.

Igandean izango dute urteko azkeneko zita, Ohitura Zaharrak abesbatzakoekin kantari ateratzeko. 17:00etan elkartu dira, udaletxeko arkupeetan. ■



Bertsolata hasteko, eskolen arteko bertso-paper lehiaketaren sariak banatu zituzten; Lore Arretxe izan zen irabazlea, Txirrita eskolakoa.

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTXAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jaiegutaria: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jaiegutaria: 7:00-14:00

Ogi egin berria
beti zure eskura

**AITAN-ETXE
TABERNA**

Larramendi, 15
943 55 00 46

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezizgo poligonoa - Tel.: 943 55 00 89

20120 Hernani

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTZAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☙ / **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**

EGURALDIA	GAUR Euria egingo du gaur ere, bereziki goizean, fronte bat pasako delako. Gero, ostarteak zabalduko dira pixkanaka, eta atertzera egingo du. Mendebaldeko haize biziarekin, epeldu egingo du: Min.8° / Max.15°	BIHAR Nabamen egingo du hobera bihar, eta giro polita izango dugu. Ateri eutsi, eta eguzkitsu egongo da. Haizea xuabe hego-mendebaldetik, eta tenperatura bemro gora: Min.11° / Max.18°
------------------	--	--

I UDALA

Hilerriko errolda eguneratzeko prozesua martxan, Udalak

«Emakiden baitan dauden jabetzak ez dira batere errealak», azaldu dute. Hilobiratze unitate bakoitzerako, ordezkari bat izendatzea da asmoa.

PROZESUA jarri du martxan Hernaniko Udalak, hilerriko errolda eguneratzeko. Izan ere, azaldu dutenez, «egun Udalak daukan erroldaren arabera, emakiden baitan dauden jabetzak ez dira batere errealak; eta ondorioz, transmisioak eguneratu eta hilobiratze unitate bakoitzerako ordezkari bat izendatzea da asmoa».

2012an onartu zuen Udalak, hilerriari dagokion araudi berria; eta bertan jasotzen dira, lurperatze eskubideen izaera eta eduki orokorrak, iraunaldia, aldatu eta eskualdatzea, obrak eta konponketak...

Araudiko bi gairi emango

die garrantzia Udalak, prozesu honekin: hilobiratze unitate bakoitzeko ordezkari bat izendatzeari, eta emakiden iraungitze datari. Ordezkaria, emakida bakoitzaren jabeek izendatu beharko dute; eta bestela, Udalak izendatuko du, 30garren artikuluaaren arabera.

Iraungitze datari dagokionez, epe ezberdinetarako eman izan dira, araudi desberdinen arabera; eta hori erregularizatzeko asmoz, Udalak erabaki du denei luzatzea lege eman daitekeen urte kopuru haundiena: denei 99 urtetara luzatzea emakida, bakoitzaren kontzesio data kontutan hartuta.

Hiru hilabeteko epea, ordezkariak izendatzeko eta alegazioak aurkezteko

Prozesu honetan, hiru hilabeteko epea emango du Udalak, alegazioak egin, dokumentazioa aurkeztu, aldaketak proposatu eta ordezkariak izendatzeko. Espedienteak kontsultatzeko aukera ere izango da, HHZn (08:00-14:00). Hiru hilabeteak igarota, alegazioak erantzun eta aldaketak eginda, errolda berritua onartuko da.

Udalak jakinarazi du, gainera, epe horretan ez dituzte kobratuko transmisioak; eta ondoren, ordenantza fiskalari helduko zaio berriro. ||

I GABONETAKO KONTZERTUA

Otxandorena eta Pachecori esker ona, kontzertu berezian

Kontzertu «zoragarria» eman zuten aurreko larunbatean, Hernaniko Musika Bandak, eta Ozenki eta Goizuetako Umore Ona abesbatzek, San Joan Bataiatzailean. Bakoitzak bere sorta eskaini zien, eliza bete zuten ikusleei; eta *Zeruko deia* abestia elkarrekin, estreinakoz Hemanin, Bilboko Musika Bandako zuzendariak moldatu eta Hernanikoari eskainia. Gero, ezusteko omenaldia egin zieten Zipri Otxandorena eta Roberto Pacheco zuzendariak, plaka bana emanez. Bukatzeko, *Oi ama euskalerrri maitea* abestu zuten, ikusleekin batera. ||



Ozenki eta Umore Ona abesbatzak kantuan, larunbateko kontzertuan.

I DORRONSORO OKINDEGIA



Pako Zabaleta, saskiarekin pozik.



Vicente Brunet, Dorronsoroko saskia jasotzen.

Pako Zabaleta eta Vicente Brunetentzat, Dorronsororen saskiak Urtero bezala, bi saski zozketatu ditu Dorronsoro okindegiak, Gabonak iristearekin batera, bezeroen artean. Eta bi sarituak, Pako Zabaleta eta Vicente Brunet izan dira. Dorronsorok irabazleak zoriandu nahi izan ditu, eta eskerrak eman partehartzaile guztiei, bere fidelotasunagatik. ||

I ESKU PELOTA

Euskal Herrikoan gaurtik, Hernani

Zumarragan jokatu du Torneo Nazionaleko final zortzirenak, Lea Ibarrenaren kontra.

GAUR hasiko du bere ibilbidea Hernanik, Euskal Herriko Torneo Nazionalean. Final zortzirenetan hasiko da, klubaren arteko txapelketa garrantzitsuenetako batean; eta Lea Artibai izango du aurreneko kontrarioa, Munitibarreko taldea.

Zumarragan jokatu du aurreneko kanporaketa hori, gaur gaueko 21:15etan hasita. Txukun Lakuari irabaztetik datoz bizkaitarrak, eta kontrario arriskutsua da; baina hernaniarrak dira faborito, bere maila ematen badute.

Hiru modalitateetan, partidua bana jokatu du, eta bi irabazten dituen taldeak egingo du aurrera. Aurrena, lau t'erdian, Paul Ojuel ariko da, Urionaren kontra. Ondoren, buruz buru, Markel Lizeagak jokatu du, Arizabalagaren

kontra. Eta azkenik, binaka, Iñigo Urkizu eta Eneko Aizpirtarte ariko dira, Muñozguren eta Uriondoren kontra.

Bi final bihar, hernaniarrek Bihar, berriz, bi finaletan ariko dira hernaniarrak. Lizeagak Gipuzkoako Txapelketakoa jokatu du, buruz buru, Intxurereko Artolaren kontra; Tolosan 11:30etan. Hernaniarra da faborito, txapelketa bikaina jokatu ondoren, sasoi betean; eta aurrean, ezustekoa eman duen pelotari bat.

Ioritz Arrietak jokatu du beste finala, 18:30etan Villabonnan, Antton Pebet torneoan. Olaburuko Zezeagarekin, Urbi eta II eta Arangurenaren kontra ariko da. Partidu berdindua espero da, oso maila haundiko lau pelotarirekin. ||

I GAZTE ASANBLADA

Lau zita gaur, gaztetxeko jardunaldietan

Lau zita izango dituzte gaur Kontrakantxa gaztetxean, Gazte Asanbladaren jardunaldietan: gaztetxearen hausnarketa prozesua 10:00etan, *Kanika Iraultza!* 17:00etan, eta drogen inguruko tailerra 18:30etan. Eta gaueko 22:00etan, Wukroren aldeko Jam Sesioa. Gainera, Jam Sesioaren eta mikrofono irekiaren artean, sorpresatxo bat ere izango da; eta jendea animatu dute, bertaratu eta parte hartzera. ||

I TXANTXANGORRI

San Silbestre ehiza txapelketa, bihar

Txantxangorri elkarteak antolatuta, San Silbestre ehiza txapelketa jokatu du bihar, goizeko 09:00etan hasita, Oiartzungo Arkalen. Bertan apuntatu beharko da, 15 euroan, 09:00etatik 10:00etara. ||

I ERRUGBIA

Errifako saskiak banatuko dituzte gaur

Gaur banatuko ditu Hernani Errugbi Elkarteak, errifako hiru saskiak; 20:00etan, Plaza Berrin. Irabazleak: 0142, 3149 eta 2761. ||

I ERREMONTEA

Frontoi motzeko finala gaur, Barrenetxeak

Erremonteko frontoi motzeko txapelketaren finala jokatu du gaur, 18:30etan Iruñako Labriten; eta bertan ariko da Endika Barrenetxea, Urrizaren kontra, semifinalean Utergari 30-22 irabazi ondoren. ||

IRAGARKI MERKEAK

Taberna alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo Labaka katean, Hibai taberna. Deitu: 943 21 78 56

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)